


NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

ITUREN'GO ERRETORA EUSKAL IDAZLEA



Ituren'go Herrikoetxea. (AIDA argazkia).

Elizaren ondotik Ituren'go bazterrak ederrak ikusten dira; zelaiak beran, Ezkurra ibaiaren ondoan, landak orlegi, sorokak artok beteak, basoak ta mendiak, gaifeko aldean Mendaur zuriz jantzia bere 1.137 metroekin, gallurrean Trinitate elizakoa.

Nere ustez, herri onenetakoa, erri onentzat, etorri berria daukan erretora degu; Fermin Ixurro, Uzi'ko semea, euskal idazle bikaina. Euskal idazle amorratua da. Euskaldunentzat nolako bitxia dan euskera ba daki. Ez du Euskalerrria gutxi maite. Urte asko Aragoien, Jaka ondoan igaro ditu ta orain bizipairu urte Naparro'ra apaiz bezala etorria da. Ain zuen Ituren errirako izendatu dute. Apaiz argi batentzat erri-bikaina. Irakurtzen ta ikasten asko ari da. Beretzat euskerak ez dauka ikutapenik. 1972 garren urtean ari da, era bat euskeraz idazten. Esango nuke urte ortan Naparro'ko euskal kultura saillean izar berri bat jalo zaiola, zorionez, gaifera oso ona, nartararren artean onenetakoa. Euskera nai duan bezala erabiltzen du. Gauza goxoak esaten ba daki; zorrotz eta garbi jokatu ere bai. Berriar arintasun aundia ematen die. Ensegunak sakonak egiten ditu. Lerroak multzoka ateratzen zaizkio. Urte batean Principe de Viana aldizkarian idatzi duna ikusita, esango nuke, urte gutxi barruan Naparro'ko euskal kulturari ikaragarriko bultzala eman goz diola. Oso gizon lanillea ta azkarra degu. Bere emaitza aberatsa izango da Naparro'rentzat. Orrelako gizonak ez dira urtearekin ordaintzen. Ituren'go errian euskaren alde lan asko egiten ari dala, ez dago esan bearririk. Mezak ta danak, kristaukasbidea egunerok, itzaldiak eta abar danak euskeraz ematen ditu. Giza seme soillain nola mintzatzen dan ere ikustekoa da. [Ekin eta jarra!]

Erriak daukan bizi indartsua sakontzeko, ezagutzeko ta kultura mailara jasotzeko, orrelako gizonak gure artean bearezkoak dira.

LATXAGA

EUSKALTZAINDIAREN BATZARRA

Joan den otsailaren 23 an Euskaltzaindiak bere hileroko batzar arrunta egin zuen Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian.

Hona hemen batzarrean erabiltako gai nagusi batzuen laburpena:

Etorlek ataratako gupil gisako Adiztegiari buruz, hauxe esan beharrean gertatzen da Euskaltzaindia: Gupil hortan dauden adizki batzuk Euskaltzaindiak onartuak izanararen, edizio horrek ez duela ofizialtasunik eta ez inongo baimenik gure aldetik.

Pierre Lafitte euskaltzain jauna txosten bat irakurri zuen: «Euskal aditzeko hiru-ke atzizkiak». Ondoren elkar hizketa bat izan zen azterketa-gai hontaz.

Euskaltzaindiko barne araudiaren lehen asmoa gerta dezala agindu zitzaion hartako den batzordeari.

«Euskera» Euskaltzaindiaren aldizkariak truke eginez, euskal aldizkariaren bilduma osatzeko bidez hitz egin zen. Haritschelhar lehendakari ordeak berri pozgarri bat ekarri zuen: heldu den udan, udako euskal Unibertsitatean atolatuko dela Bortezko Unibertsitatearen izenean, ofizialtasun osoz eta Departamenduko Kondeilu Jeneralean itzilat. Eta halaber Euskaltzaindiaren itzala eta lankidetzak eskatu zituen. Eta eskatu bezala erabaki zen.

Matatzaren 3, 4, eta 5 ean Bortezko Unibertsitatean Jardun batzuk izango dira honako gai hontaz: XIX. mendeko lehen erdia Euskal Herrian. Jardun hoiatarako ere Lehendakari ordeak Euskaltzaindiaren itzala eta lankidetzak eskatu zituen. Eta bai lortu ere.

Eskola hiztegia prestatzen ari den batzordeak hiru zerrenda aurkeztu ditu. Zerrenda hoiak euskaltzain oso eta aholkulariei pasatuko zaizkie, oharrak egiteko hila-beteko epea ematen zaiela.

(Euskaltzaindiaren Prensak Bulegoko Agiria)

EUSKALERRIAN BARN



«Inauteria»

Izenburu honekin «Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones» delakoak euskeraz eta erderaz idatzitako liburu berri bat argitaratu eman du arestin, Donostiko «Caja de Ahorros Municipal» aren «kulturr Elkargo» honek Euskal Herriari buruzko mota guztietako gaiak arturik liburu ugari eta oparoan argitaratzen du.

Editorial honek bere lanak Sail batzuetan ditu partitua. Euskal Herriko Gizonak, Aita Larremendiren idazlanak, Ensayo delakoaren liburu sorta eta Euskeraz idatzitakoak.

Azken liburu hau laugarren delagokion da. Bere izenak ongi adierazten duen bezala «Inauteria» (bere erderazko izenburua «El Carnaval vasco» da) liburuan Euskal Herriko Inauteriaren berri, xehe tasun, asiera, iturburu eta agertzen dira. Lau zati ditu gure liburuak: Lehenbiziko Inauteriaren azterketa eta jatorria ikutuzten dira baita gure herrietako zenbait Inauteri berezien berriak ere; hala nola Zuberoako maskaradak, Lanzeko Inauteria, Adios herriko «Judas», Arbizuko «Aitun eta Amia», Zaldueko «Marquitos», eta abar.

Bigarrenean gure herrietako zenbait Inauteak: Bizkaiko mendeabaitetik aita, Gipuz osari jarraitzen eta Imozko Etxaleku'ko herriraino elduz. Irugarren partean Inautez kanpo ospatzen diren herri batzuetako Inauteriak: hemen Nafarroako herri multzo bateko Inauteak azaltzen dira. (Leitze, Areso, Ituren, Zubietta, Uhitzi, Araizko Balezakoa, Ziga, Oronotz, Beruete, eta).

Eta laugarren Zatia Tolosako Inauteriari osoan zuzendua da.

Bere egilea Juan Garmendia Larrañaga da. Tolosako seme zintzo hau berebiziko lana egiten ari da Euskal Herriari eskeindua. Liburu batzuk baditu eginak «euskal langintza» gaitzat arturik. Idazle nekazaina da, herri herri gauzak eta berriak jasotzen ibiltzen dena.

Liburu hau euskeraz eta erderaz idatzia dago. Hit-

zurrekoa nere lagun haundi eta langile zintzo den José María Satrustegi apes jaunak egindakoa da. Liburuaren balioa: 200 pezeta.

«Etniker» taldea

Miguel Barandiaran etnologo haundiarren susenpean, Nafarroako Unibertsitatearen Etnologia Katedrak «Etniker» deritzen lan eta egintzak egiten ditu. Orain Euskal Herri osora «encuestas» moduko orriak zabaltu ta gure Euskal Herriko Etnologiari dohakion guziaz aztertuta eta bitzeko, Deustuko Unibertsitate bere «Euskal Kultur Mintegia» delakoaren bidez, laguntza, eta erantzunak emateko lanean murgilduta dago. Gipuzkoan ere «Arantzadi» taldeak lanean berberetan lan egiten du, eta Irufean «Principe de Viana» ren Elkargoa, Satrustegi jauna duela buru, lan honi ere lotu zaila.

Asmo nagusia Euskal Herri guziko mapa etnografikoa egitea da.

«Etorrizuna»

Irufeko euskaltale batzuek «Etorrizuna» izeneko harrentzat euskeraz TBO moduko liburu txoak argitaratzeko Elkarte berri bat sortu dute. Ale bat argitaratua du oraingoz «LAMINZULO» deritzana. Ongi egina da, hala azalez nola barengoz. Bereirudi eta kolearek txukunak dira. Barcelonako JAUME-LIEROS S.A. Editoriak ETORRIZUNA Elkarte honedako argitaratu eman du SIRVEN SAE moldidtegiari. Jose Mari Satrustegi izan da euskeratu duena.

Hile bakoitzean ale bat argitaratzeko asmotan daude, urtean amabaz beraz azalduko dira. Gure euskal harrentzako txit egokiak dira.

IKUSLE

CALIFORNIA-ko euskal ASTEKARI- tik zerbaite geiago. - (V)

Goytino ezpeletar euskarazale bera en aldizkarietik zenbait berri ekarriko ditugu berri ere.

Bortxazko ezkontza

Miles deitzen den kantiner bat Santa Monica-n bizi zen andre batekin (esposatu gabek); unione hortatik lau haur sortu ziren. Miles, bere aldetik alargun bat zen, 20 urtetako seme batekin geditua. Egun hautan bere seme eta andre-ordea, behar ezden maneran arapatutu, eta semea, hiltzen zuela erran dio, berehala «nazteki» hura esposatzen ezbaiziba-zuen. Nahitaez semeak aita

obeditu du eta familia guziaz gure herriar (Los Angeles) yin dira, ezkontzeko paperen hartara; bakoeko yuy batek juntu ditu. Baina bi-haramunean semeak aita arrasta-azi du oharitu delarik, «o be ra punitu (kastigatu) zuela, bere amalzuna-ren esposatzerat obligatuz.

Miles jauna, egun hautan pasatzekoa da yustiziaren, eta esperantza dugu, untsa punitua izanen dela. Sabu hemen, holako itsuskeriak nun ikusten dira?

Laudorioak

Los Angeles Herald gure herriko berri-ketari amerikanoak, gure paperaz ke'one, joan den asteazkenean zion:

Mr. GOYTINO, editor of Le progrès, has comenced the publication of a paper in the basque tongue... euskeraz erran nahi baitu; Mr. J. P. GOYTINO, Le Progrés deritzen den berri ketari frantsesaren egileak Eskuadun paper bat hasi du ESKUALERRIA deritzen dena. Segur guira eskura leitzen dute nek paper hori ongi egina kausituko dutela eta interesanta; Mr. Goytino-rekin ez-litake berzela izan.

Konplimendu hori hanitz estimatzen dugu, eta esker-erak bihurtzen, hoin ederkigutaz mintzo denari.

(Aldizkariaren buruzagia, beraz, letradunen artean estimatua zen; etzen norra California, eta alpatua berak ateratako euskal paper-a).



Errekara joaiteak

Ez dire xolament gure Bankoak hesten; gauza hori memento hontan (1893an) alderdi guztian gertatzen da. DENVER EN (Colorado). Joan den astelehenean, girusko etxe guziaz o'rron atekak hetsi dituzte. Lerro lerro, lertsunak beza'a, lendeak diruaren galdex karriketan diren.

Jendea nola zen asalduta bankeroek ikusi dute a ik, atek zerratu dituzte. Dioten bezala, nehorik ez omen du bezala galduko. Kansas City deitzen den hirian, gauza bera gertatu da; Banko guziak, elgar aditu ondoan, hetsi dira.

Hola hola joan bainbadi-re (bainbadozi) na joziok, errekarat goazila erralten ahal dugu. Gure Administrazio demokratik, orai artino ezdu on hanitz egun. Fabrika handienak beti hetsiak dire eta nehorik azla batera le (artile) galdetik. Bertzenaz ere, aste hunkako Banko zerrataz horrek nagozia arras hili du. Neareaz pre-

AXULAR SARIA

OLLOA MANTSOTZEN

Egun batean, irakasleak esan zuten: Aspaldi gizonak hartzen zuten abereak eta mantzotu, mantzotu egiten zubiela.

Hori entzunik mutiko batzuek, Benito, Aitor, Patxi, Imanol, Jose Antonio eta Juan Josek, pentzatu zuten olloa hartu eta mantzotzera eta olloa hartu eta lolara eramane gaixoa lolaz beterik utzi zuten.

Damututa azkenik garbitzera eramane zuten errekarara gero pakean uzteko.

Karasatorre, tar Garbiña 7 urte.

Ikastola «Andre Mari» Etxepare-Aranaz, koe

MUGA ALDEAN

Egun batean kontrabandista batzuek pasatu bear zuten Kanpo Santuko bidean barna.

Kontrabandistan nagusia zagon guardian ia norbait ote zan an barna. Eta alako batean ikusi situen bi guardia zibill etorri eta jarri zirela Kanpo Santuko atearen kontra. Nagusia bere artean esaten zuen:

—Nik zer egin bear dut, orain etorriko dire nere lagunak eta ok omen.

Alako batean gogoratu zalon pasatu bear zuela paretan barrenengo aldera, eta poliki poliki joan zen guardia zibillen ondoan. An omen zagozin biek olatsetan, zigarrak fumatzan. Nagusia poliki poliki pasatu zuen atin zutotik eskua eta ukitu zion bere matelien. Biek eman zioten lasterrari eta botak ia autsiak joan ziren parte ematera purgarioko animan bat izanen zela uste zutelakoz.

Orduan besteak probetxatu zuten eta eben paketik artu bizkarrean eta aurrera segitzeko.

Mirentxu Lourdes Maritxalar.

Amairu urte.

Lesaka.

PAKEA

Zenbat eta zenbaterik itz egiten dute pakearengain jakin gabe zer dan eta zer nai duten. Danok nai degu pakea guretzat eta bestentzet ere nai degula esaten degu. Ez gutxiat esatera bakkirik izaten da. Ala ez esate elitzake ongi egongo, baina gure eginkizunak nolakoak dira? Bakoitzak ongi ibilkeraren atzetik dioa besteak lertuko baitira ere. Egin-kizun oiek ezartamate pakea berekin eta oartu gabe ustekaitzean gaude.

Zer da pakea? Paulo VI' garrenak esan digu zer ezan eta zer dan pakea. «Gudan eta burrukan ez ibiltzea ta asarre ez egotea ezta naiko. Pakea bakoitzak bestearen ideak errespetatzea da».

Zer ezten. Geienak guda edo burruka edo asarrerik ezpada pakean gaudela uste dute. Aita Santuak auel daniel esaten die eztaudela egian ustekaitzean baizik. Bi gauzengatik ezta askotan guda edo asarre izaten. Bat urrutik egoteakin bata besteari eztrialako ikusten. Beste, golan egoteakin eta indarra bere eskutan izateakin lagun urkoa nai ta nalez txilik eta geldik egon bear dalako. Bietan esan al ditek pakean gaudela? Ez, inondik ez. Zoritzarrez ustekaitze au eundia ta askorena da.

Zenbat alidiz ezta ez gudarik eta ez asarrerik, baina begiratzek eta asmoak nolakoak dira? Jakingo ba gertutze biotzaren gogoak eta asmoak ikusiko genduko nola egiri dana ezten pakea, pakearen trudi baizik eta orrekin eztego ezertko ere egiten.

Zer dan Paulo VI' garrenak batez ere bakoitzak bestearen ideak errespetatzea dala esan digu. Itz auelin zartako aundi bat eman die asko ta askori ta batez ere lurbera geieneko egintzeri.

batek baño gelago esango du berak errespetatzen ditula beren mendearen dauden ideak bafia gero ezite uzten, ez gezurra, egia baizik esaten. Ori al da errespetatzea? Alakotan ezteiteko pakearengain itzik egin itxitea obs da. Zoritzarrez ezta egintaria itxiduko, bearko ta, mendekoa baizik, bestela ba daki zer dorkion: giltzapien sartu. Ori da gaurko gezurteko pakea.

Gaurko egunean nun da errespetua? Semeak aitari, semea eta batez ere biak onak ba dira. Agintariak mendeak denetan beren gogoak egitea ba dituzte, ta bestela zer? Mendekoa egintzeri gogoan jartzen ba zale. Au dana eginkizunetan elegia, ta ideetan berdin. Esan dezakegu ba pakean gaudela? Ez, ez gaude pakean. Aita santuak eskatu digun bezala ezpada guraik ezta asarrerik, eta beste guztien asmoak edo ideak errespetatzen ba ditugu ordutan esan dezakegu ba pakean gaudela.

FELIPE ARANA

Papurrak

Madama M. Bastanchuri (guztiz arranchero ezaguna izan denaren anderea), zoina eri baita denbora apur hontan, Nortarat, ALASKA deitzen den Estado batera joanda, midikuen ordrez.

Madalen ETCHEMENO Y, gure herrikoa (Los Angeles), Eskola Normaleko etsaminean errezebitua izan da berriki. Hortarik agueri da Eskualdunen haurrak, barteak baino tontoago ez dira.

Mr. Biscailuz, eskualdun abokatarren (eta Astelekarren sartua) andreak, Korwari (Juzgadoari) joan den asteazkenean, diborzioa galdatu du senarraren ganik. Baina uste dugu afera hori Tribunaler joan gabe antoatu den.

Hola hola joan bainbadi-re (bainbadozi) na joziok, errekarat goazila erralten ahal dugu. Gure Administrazio demokratik, orai artino ezdu on hanitz egun.

Fabrika handienak beti hetsiak dire eta nehorik azla batera le (artile) galdetik. Bertzenaz ere, aste hunkako Banko zerrataz horrek nagozia arras hili du. Neareaz pre-

Huna European o'ulkatzen

A. APAT ETXEBARNE

Euskal aldizkariak

Huna European o'ulkatzen

A. APAT ETXEBARNE